



Fedea bizi eta ospatu

“**Elizbarrutia, familia bihurtzen da** ebanjelizatze-egitasmo berean bat egiten duenean; eta askotariko sentsibilitate eta estiloek batasuna aberastu egiten dute guztiok bat gatozen lehentasunezko jarduerak daudenean”.

III. Ebanjelizatze-Egitasmoa (2018-2022)

Bidera Goaz! / Salimos al encuentro

Egitasmoa 4 jardunbiderekin

1. Elkarte-sortzailea den Elizbarrutia
2. Jesusen mezuaren transmisioa
3. Fedea bizi eta ospatu
4. Fede aitortza eta gizarte konpromisoa Eliza samariar bezala

Aurreko kurtsoetan, 4., 1. eta 2. lerroak lehenetsi genituen. 2022-23 kurtsoan, higararren lerroa landuko dugu: Fedea bizi eta ospatu.

3.- Fedea bizi eta ospatu

'salbatzen gaituen Jesusen maitasunarekin norberak bat egin'

Jesukristorekin bat egitea da ebanjelizazioaren xede eta abiapuntua. Jainkoaren esperientzia sakonak eta sakramentuetan, bereziki Eukaristiaren eta Adiskidetzearen ospakizunean, Kristorekin bat egiteak gure bizitza aldatu egiten du. Bakarka eta elkartean, Jainkoarekin bat egitea eta Kristoren graziaren bitartekaritza bizi eta ospatzen ditugu. Gure liturgia ospakizunetan, "Kristo piztu eta aintzatsua da gure itxaropenaren iturri sakona, eta eman digun egitekoa betetzeko Bere laguntzarik ez dugu faltako" (EG 275) adierazten dugu. Aipatutako ospakizun horietan, Espirituak fedean sendotu egiten gaitu eta Elizaren misio ebanjelizatzailea agertzera ematen da. Ospakizunak, iragarpen ebanjelikoaren ezinbesteko osagai dira.

Jainkoaren esperientzia eta Kristorekiko elkartasuna poztasunituri eta ezkortasunaren, fatalismoaren eta mesfidantzaren aurkako antidoto dira. Misiolari irrikari bizirik eusteko, Espiritu Santuarengan konfiantza jarri behar dugu, izan ere "Espiritua datorkigu geure ahulezian lagun" (Erm 8, 26), misteriotsuki emankor bihurtuz (EG 280). Jainkoaren esperientzia hau eguneroko bizitzara daramagu eta hortxe gertatzen da berriz Jainkoarekiko bategite salbatzaile eta eraldatzailea batik bat ahulenen aldeko zerbitzuan.. [...]

Gaurko munduaren eta gure Elizaren erronka handiek erantzun berriak eskatzen dituzte gure elizbarrutiaren misiolari jarduerari begira eta, horrek, ezinbesteko egiten du graziaren

nagusitasunaz jabetzea (EG 112; GE 47-59) eta Jesukristo hil eta berpiztuarengan agertzera emandako Jainkoaren maitasun errukitsua ospatzea, “gizatasunez betetzen gaituen eta bizi berria bizitzen laguntzen gaituen ondasun baten (fedearen) jabe garela” (EG 264) konturatuz. [...]

Gogoeta hauen argitan, eta ebanjelizaziorako bide berriakarakatzeko asmoarekin, **honako hauen alde egiten da:**

1. Apaiz eta laikoez osatutako ekipo ministerialak sustatu Hitzaren ospakizunaren arloan.

2. Fedea pertsonalizatu: barnekotasuna eta isiltasuna lantzeko eremuak eratu; bakarkako, familiako eta elkarteko espiritualtasuna zaindu eta sendotu, Jainkoaren Hitzaren entzute otoizlariari lehentasuna emanez (ik. GE 147-157)...; kristau bizitzaren bokazio alderdia landuz, gizon eta emakume bakoitza “misioa delako lur honetan” eta horretarako dagoelako munduan (EG 273).

3. Eukaristia, bereziki igandekoa, Elizaren eta sinestedunaren nortasun eta misioaren iturri bezala ospatu eta bizi, Kristori bere graziaz norbere bizitzan sartzen utziz, eta fededun bizitzaren eremuetan (familia, lana, heziketa, aisia...) fedea eta bizitza uztartuz.

4. Laguntza pertsonal eta komunitarioa bizitzako une desberdinetan; banan banako arreta Penitentziaren sakramentuan, elkarrizketa pertsonal eta banakako absoluzioarekin.

5. Eliza unibertsalarekin bat eta Meza-liburu erromatarrari leial, gure ospakizunetako sinbologia eta hizkuntza gaurkotu eta zaindu.

“ Ebanjelizatzeko lehen motibazioa Jesusengandik jasotako maitasuna da, Berak salbatuak izatearen esperientzia: Bera gero eta gehiago maitatzera garamatzana. Baina, zer maitasun klase da maitatuari buruz hitz eginarazten, agerrarazten, ezagutarazten ez diguna? Bere berri emateko gogo sutsua sumatzen ez badugu, otoitz egin beharra dugu, Berari berriz lilura gaitzan eskatuz. Egunero dei egiteko beharra dugu, Bere grazia eskatzeko beharra, gure bihotz hotza zabal dezan eta gure azaleko bizitza epela astindu”.

Frantzisko Aita Santuak

Ebanjelioaren poza / Evangelii gaudium 264



**DIO
CESIS+**

Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

www.salimosalencuentro.org

info@diocesisvitoria.org    